



Hezkuntza Saila. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza.

Lehentasunezko 1. ildoak:
(ESKOLA INKLUSIBORANTZ)

BIZITZEKO EZAGUTZA ETA TREBETASUNETARAKO HEZKUNTZA PROGRAMA

ZER DA?

OMEk (Osasunaren Mundu Erakundea) dioenaren arabera, bizitzeko trebetasunak dira: “Jokaera egoki eta positiboa edukitzeko behar diren gaitasunak, eguneroko bizitzako eskakizun eta erronkei era egokian aurre egitea ahalbidetzen digutenak”

Hona programa honen helburua: neska-mutil guztiengan garatzea bizitzeko behar diren gaitasun guztiak, berdintasunezko marko batean garatu ere.

Esku hartzeko proposamenak aurkezten ditu, eta baliabideak ematen, ikastetxe bakoitzak ikasleen garapena susta dezan, generoaren mugak gaindituz, eta behar dituzten ezagupenak, trebetasunak eta jarrerak eskainiz, edozein ingurutan behar bezala molda daitezten.

HELBURUAK

1. Ikasle guztiei bermatzea bizitza orekatuak eskatzen dituen oinarrizko trebetasunak euren esku izango dituztela.
2. Ikasleei prestakuntza eskaintzea, etorkizuneko erronkei aurre egin diezaieten, eta etengabe aldatuz doan gizartean bizitzeko gai izan daitezen.
3. Norberaren autonomia garatzea, baita norbera eta gainerakoak zaintzea ere.
4. Ikasleak trebatzea, eskolan ez ezik, gizarte-bizitzan ere ondo molda daitezen, eskola izango baita ikasle guztiak behar bezala gizarteratzeko zubi.
5. Behar bezala komunikatzeko, pertsonen arteko harreman onuragarriak izateko eta gizartean parte hartzeko gaitasunak lantzea.
6. Elkarrekotasunerako hezi, baita emozioak ondo erabiltzeko eta erabakiak hartzeko erei.
7. Kritikarako gaitasuna garatzea.



NORENTZAT?

Esku hartzeko funtsezko eremua ikastetxeetako irakasleak dira, eta hezkuntza-komunitate osora zabaltzen da, berdintasuneko hezkuntza lortzea sektore guztien eskuetan dago eta.

ZER PROPOSATZEN DU PROGRAMAK?

- Herrikidetasun-espirtua duten pertsonak prestatzen laguntzea, behar bezala aurpegi emateko gizakiak gaur egun dituen erronkei: emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna, osasuna, ingurumena zaintzea, gizartekoitasuna edo jendetasuna lantzea.
- Pertsonen arteko harremanak hobetzen laguntzea.
- Euskal hezkuntza-sisteman orientazio pertsonal, akademiko eta profesionalerako esparrua lantzea eta garatzea, eskola inklusibo eta kalitatezko baten barruan.
- Bizitzeko ezagutza eta trebetasunekin lotzen diren curriculum-proiektuak garatzeko irakasleen lan-taldeak sustatzea.
- Proiektu orokor zein zehatzagoak bultzatzea, ikasleen beharrei eta familia zein komunitatearen nahiei erantzuteko asmoz.

HONA HEMEN ESKAINTZEN DIREN BALIABIDEAK:

- Prestakuntza, hezkuntza-komunitateko hiru sektoreentzat: irakasleak, ikasleak eta familiak.
- Aholkularitza ikastetxeentzat.
- Laguntzarako materialak eta esperientziak.



PROGRAMA HAU LANTZEKO ARRAZOIAK

- Hezkuntzaren funtsezko hiru esparruak garatzen ditu:
 - ✓ Pertsonen garapena: norberak bere burua gestionatzea, jokabidea autorregulatzea, autoestimazioa, borondatea, automotibazioa.
 - ✓ Sozializazioa: Europako eta munduko antolamendu berrian esku-hartze kritiko eta sortzailea lantzea
 - ✓ Akademikoa: curriculum-alorren garapena, gaurko munduaren eta kulturaren ikuspuntua konpartitzeko, eta lan munduan sartzeko behar diren gaitasun profesionalak garatzeko.
- Azken finean:
 - ✓ Ezagutzen ikasi.
 - ✓ Egiten ikasi.
 - ✓ Elkarrekin bizitzen ikasi.
 - ✓ Izaten ikasi.